


EUSKERA

APIRILA MAIATZA EKAINA 2019



AZKUNA
ZENTROA
ALHÓNDIGA
BILBAO

Bilbao

Topaketa literarioa Seth marrazkilariarekin



Seth



Sethek, Ipar Amerikako komiki independenteko ezinbesteko egileak, *Ventiladores Clyde* aurkeztuko du Azkuna Zentroan, ziurrena, bere lanik garrantzitsuen dena, ia hogeit hamar urte eman baititu bera prestatzen. Hor, bere jakintza eta dotoretasun grafikoa erakusten du, aurreko mendeko hogeita hamarreko hamarkadako The New Yorker argitalpeneko ilustratzailearen oinordeko dena.

Ventiladores Clyde lanean, bi anaia agertzen dira, familia- enpresa zaharkitua aurrera ateratzeko borrokan, baina negozio-eredu berriekin eta etengabe agertzen diren aurrerapen teknologikoekin lehiazeko ezgauza.

Mediatekan izango den topaketan, Sethek istorio familiar honen xehetasunak azalduko dizkigu: atsekabe eta desadostasun ugariak, saminez eta malenkoniaz blaituriko narrazio-giroan.

Seth (Clinton, Ontario, 1962) -Gregory Gallanten ezizena- komikien marrazkilaria eta ilustratzailea da. 1991n atera zuen berak egindako *Palookaville* komikia, *Drawn & Quarterly* zigiluak argitaratuta. Gaur egungo egilerik garrantzitsu eta itzaltsuenetako bat da. Lan hauek eman ditu argitara, besteak beste: *Ventiladores Clyde* (2003), *George Sprott* (2009), *Wimbledon Green* (2012), *La G.N.B. doble C.*(2013) eta *Un verano en las dunas* (2016). Komikiak egiteaz gain, Seth ilustratzaile ospetsua da, eta entzute handiko tokietan atera ditu lanak, hala nola The New Yorker eta The Washington Post argitalpenen burualdeetan.

////////////////////////////////////

Ekainak 3, astelehena

19:00

Medialab 2. Mediateka BBK

Sarrera dohainik, gonbidapena izanez gero (jaso infopuntuak) leku guztiak bete arte.

////////////////////////////////////